

PRODUKTUEN SEGURTASUNA

Tatuaiak

ASMATU
JOPUNTUAN. **ZURE**
SEGURTASUNA
DAGO JOKOAN

Irakaslearen Gida Didaktikoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, ENBESKUNTZA
ETA TURISMOA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
CULTURA Y TURISMO



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEL GOBIERNO VASCO



COMISIÓN EUROPEA

Konburtuzkizaren Hezikuntza SAITEA Europako Konburtuzkizaren Faktorei Koordinatzen du. Bertan hartzen du Autonomia Erakundeek hartzen duten parte: (Katalunia, Asturias, Valentziako Komunitatea, Galizia, Garieta-Mantza, Euzko Autonomia Erakundeak, Euzkoarentzat, Madril, Aragón, Garieta eta Leongo Erakundeak) eta hosto dutenak (Espainia, Portugal, Italia, Grezia eta Portugal). Gaietan eta Kontsumoko Ministerioaren (Kontsumoko Auzitegi Nazionalean) eta Hezikuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioaren (Europako programen Zuzendaritza Nagusia) laguntza jaso du.



1. **Tatuaje bat eraman nahi baduzu, joan zaitez higie-ne eta osasun arriskuen prebentziorako arau zuzenak bermatzen dituen zentro batera, bestela infekzio edo gaixotasun arriskutsuak hartzeko aukera izango duzu, hepatitis B eta C edo IHES, besteak beste.**
2. **Egiatzatu ea tatuaje zentro horrek halako jardueretarako baimena duen, tresnak esterilizatzeko metodo zuzenak erabiltzen dituzten, eta erabiltzen dituzten tintak eta pigmentuak homologatuak dauden, eta ontzi handietatik barik erabili eta botatzeko ontzi txikietatik ateratzen dituzten. Eskularruak, erabili eta botatzeko materialak eta mozorrotxoak erabiltzera ere behartuta dago profesionala.**
3. **Ez zaitez arinegi joan, nahi duzun denbora guztia daukazu zure diseinua edo marrazkia aukeratzeko. Izan ere, kontuz! gaur egun laserra eta bestelako teknika konplexuak erabiliz tatuajeak ezabatu daitezkeen arren, markak gelditu daitezke.**
4. **Eska ezazu tatuajea larruzaleko gune osasuntsu batean egitea: erredurarik ez duen, edo erreakzio alergikoetarako joerarik zein dermatologiako gaixotasunik ez duen tokian.**
5. **Saia zaitez aukeratu duzun profesionalak egindako beste lanik ezagutzen, bere lanaren kalitatea eta egiten dituen marrazki mota ikusteko.**
6. **Aholku bat: ez tatuatu aurpegian ez eta esku-gainetan ere. Alderdi hauetako tatuajeak ondorio fisikoak ekar ditzake. Tatuatu eta gutxira damutzen bazara arazo bat da.**
7. **Argi eduki behar duzu tatuajea larruzalean egindako zauria dela. Zuzen orbaintzeko, eska egiozu aholkua espezialistari, hartu beharreko arreta eta neurrien gainean. Ez ezazu bainurik har itsasoan ez eta igerilekuan ere, guztiz orbaindu arte, baina higie-ne oso ondo zaindu.**
8. **Behin eginez gero, tatuajea zure erantzukizuna da: gogoratu tatuajea lesio baten modukoa dela eta horrela zaindu behar dela, espezialistaren aholkuak eta iradokizunak jarraituz.**
9. **Eska ezazu faktura zerbitzua ordaintzean. Erreklamaziorik egin behar izanez gero ondo etorriko zaizu. Behin tatuajea egin ondoren, kontrola ezazu tatuatutako alderdia, eta medikuarengana berehala jo hauetako zantzuren bat edukiez gero: sukarra, gorritasuna edota handitzea, mina edo ondoezak.**
10. **Gogoratu urte bateko epean tatuajea egin duten pertsonak ezin direla emaila izan.**

AURKIBIDEA

| | | | |
|--------------|-------|----------------------------|-------|
| 1. SARRERA | >>> 1 | 4. JARDUERAK | >>> 3 |
| 2. HELBURUAK | >>> 2 | 5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK | >>> 6 |
| 3. EDUKIAK | >>> 2 | 6. INTERESEKO INFORMAZIOAK | >>> 6 |

Argitaratzailea: Kontsumitzailearen Hezkuntza Sarea
<http://www.infoconsumo.es/eecred>

Egileak:

Nieves Álvarez Martín
 Laguntzaileak
 Leticia Ortíz Bedia, M^a del Pilar González Echezarreta,
 Ana Vallejo Echezarreta, Amaia Saenz, Ainhoa Sanz,
 Nuria Vitoria

Diseinua eta maketazioa:

M^a Isabel Gómez Bedia
 M^a Luisa Lavín Solana

Ale-kopurua:

Autonomia Erkidego bakoitzerako koordinazioa:

Gonzalo Sánchez Moreno (Kantabria)
 Rafael González del Busto (Asturias)
 M^a José López Ródenas (Valentziako Erkidegoa)
 Esther Álvarez Fernández (Galizia)
 Alejandro Salcedo Aznal (Gaztela-Mantxa)
 Arrate Martínez de Guereñu (Euskal Herria)
 Jesús Ramón Galán Quintanilla (Extremadura)
 Susana Gil (Madril)
 Francisca Pérez Jiménez (Aragoi)
 Carmen Herrero Álvarez (Gaztela eta Leon)
 Susana Conde Escorihuela (Errioxa)

Lege Gordailua:

Inprimaketa: J. Martínez S.L.



I. SARRERA

Tatuaiaren hitzaren jatorria ziur zein den ez dakite, testu batzuetan edo besteetan, kultura batzuetan edo besteetan oinarrituta hainbat teoria plazaratzen dituzte. Batzuen iritziz, «kolpatu» polinesieraren Ta hitzetik, edo tatuaiaren egiteko azalaren gainean bi hezur elkarren kontra kolpatzeko praktika zaharretik, «tau-tau» soinua ateratzen zela, dator. Beste batzuen ustez, berriz, antzina erabiltzen zuten gorputza apaintzeko teknika da eta ta-tu hitz tahitieratik dator eta sustrai sakonak ditu arte folklorikoan. Hasiera batean, tatuatzeko ziztuak irudiak landu gabeak ziren oso eta heriotzarekin (garezurrak), maitasunarekin (bihotzak), animaliekin (sugeak),... eta abarrekin lotutako sinbolo edo ikurrak zituzten.

Zerbitzu hau erabiltzen duten erabiltzaileei heziketa eta informazioa emateko beharrezko jakitun garelarik, ikerketa dokumental zabala (mila dokumentu aztertu dituzte) eta larrialdiko inkesta xumea (12 eta 18 urte bitarteko mila pertsona inkestatu dituzte) egin ditugu ikusteko gazteek pentsatzen duten ongi informatuta daudela eta egiaztatzeko benetan horrela dauden.

Ikerketa dokumentalaren emaitzek agerian utzi dute tatuaiaren erabilera asko zabaldu dela herritarren artean, horrekin batera, gaixotasunak, infekzioak, alergiak eta azaleko gaitzen bestelako aldaera konplexuago batzuk ere ugartu dira praktika hauek egiten dituzten herritar gazteen artean, guztira horien % 20ra irits daitekeela. Ikerketek argi eta garbi adierazten dute mota honetako arazo gehiago sortu direla piercing-ak eramaten dituzten artean tatuaiak eramaten dituzten artean baino. Hala eta guztiz ere, tatuaiak arriskua dakarte beraiekin, establezimenduetako higiene eta segurtasunarekin lotua. Gehien kezkatzen gaituena da praktika hauek B hepatitis, C hepatitis eta ihesarekin duten erlazioa. Kontutan hartu behar dugu C hepatitis duten kasuen % 20an, berau gibeletako zirrosi bilakatzen dela eta kasu horien % 3 eta % 4ren artean edo gibeletako minbizi bilakatzen dela. Hori dela-eta, kontsumitzaileak jabe daitezkeen zerbitzu hauek gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuez. Egokiak diren higiene eta esterilizazioa eskatzen ikasi behar dute.

Ikerketaren emaitzek agerian utzi dute gazteen % 78ak pentsatzen duela ongi informatuta dagoela; hala ere, gehiago sakonduz gero, eta zehazkiago duten informazioari buruz, praktikan, informazio zabala duten gazteak % 12ra baino ez dira iristen. Hau da, inkestatu dituzten gazteen ia % 90ak ez du gai honi buruzko informazio egokirik eta, oraindik larriago dena, ez dira zerbitzu hau gaizki erabiltzeak ekar diezazkien kalteen jakitun.

Horrek guztiak agerian uzten du material hau behar-beharrezkoa dela, hau erabili ahal dute Kontsumitzailearen Hezkuntzako proiektuak garatzeko, lehen eta Bigarren Hezkuntzako azken ikasturteetako ikasgeletan..., bide batez, arloetako kurrikuluko edukiak landu ahal izango dituzte bere interesa pizten duen gai batean gazteak hezten ditugun bitartean, horrela, segurtasunez eta ongi informatuta daudela jardungo dute. Egokitzapen batzuk egin ondoren, proposatzen ditugun jarduera asko eta asko Batxilergoan eta helduei zuzendutako prestakuntza-jarduketetan ere, hala araututako irakaskuntzaren barruan nola kanpoan erabiltzeko balio izango dute.

12 eta 18 urte bitarteko ikasleak (hauei zuzentzen zaie materiala hain zuzen ere) iragaitzan edo dagoeneko nerabezaroaren lehendabiziko aldia zeharkatzen ari dira. Aldi hauetan bere gorputzean aldaketa fisiologikoak gertatzen dira, hauek, askotan, beldurtzen dituzte eta bere irudi eta bere buruarekin deseroso sentitzera eramaten dituzte. Garai honetan ere, afektibitatean, gizarte-harremanetan eta baloreetan ere aldaketa sakonak gertatzen dira. Ideien mundua ere erakargarritasun handiz azaltzen zaie eta mundu horretan bertan beren berezko baloreak eta pertsona-jarrerak garatuko dira. Adimen-aldaketek izaera abstraktuko pentsamenduan aurrera egitea errazten diete eta honek eragiketa logiko-formalak egitea ahalbidetzen die, oso erabilgarria dena arazoak konpontzerakoan. Arrazoitzeko, zenbait aukera aztertzeko eta hipotesiak aurkeztuz



eta egiaztatuz ikertzeko gaitasunaren garapena hastea egingarria da. Kontzeptu ekonomikoak ulertzen dituzte eta gizartea zerbait dinamikotzat ikusten dute. Pertsonak jarduten duten arazoak ulertu behar dituzte. Harreman edo erlazio anizkunak izan ditzakete eta gertaera bakar batek hainbat jatorri edo kausa izan ditzakeela eta kausak elkarren artean erlazioan egon daitezkeela ulertzeko gauza dira. Oso-oso kritikoak dira, esperientziak, sentipenak, sentimenduak,... trukatu behar dituzte. taldeak eragin handia du norbanakoarengan.

Momentu honek berebiziko garrantzia du esku artean dugun gaia Bigarren Hezkuntza lantzeko, izan ere, oro har, garai honetan erabakitzen baitute tatuatzea. Helduen prestakuntza ere gazteak adin-nagusitasunera iritsi arte familiek duten ardura ezagutu behar dutela aintzat hartu behar dute. Honako materiala ekarpen zabala, irekia da. Irakasleek erabilgarriak izango diren ideiak eta tresnak aurkitu ahal dituzte gelako programazioetarako: helburuak, edukiak, jarduerak, irtenbideak, ebaluatzeko irizpideak, agiriak,... dituztenak. Material honen osagarri ikaslearen koaderno egongo da, bertan hemen proposatu ditugun jarduerak garatzeko erabilgarriak diren fitxak eta bere kabuz egin ahal izango dituzten denbora-pasak sartuko dira.

2. HELBURUAK

HELBURU NAGUSIAK:

- Gazte guztiei, oro har, eta, zehazki, gorputzean aldaketaren bat egin nahi dutenei berau segurtasun osoz egin ahal izateko beharrezko diren ezagupenak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Tatuari bat egiteko erabiltzen dituzten teknikak eta horietako bakoitzean eskatu behar duten segurtasuna ezagutzea.
- Betirako gorputz-aldaketa batek izan litzakeen ondorioak ezagutzea, bai osasun-garbitasun mailan nola gizarte mailan.
- Tatuatzean ditugun arriskuen berri izatea eta egin baino lehen ongi hausnartu behar dutela kontuan izatea.
- Autonomia Erkidegoan aplikagarri den indarreango legedia ezgutzea.

3. EDUKIAK

KONTZEPTUALAK:

- Tatuari buruzko ezagutza historikoa: zenbait talde etnikoko alderdi kulturalak eta Mendebaldeko alderdi sozial eta kulturalak.
- Tatuari egiteko erabiltzen dituzten teknikak, tatuai-motak, tresneria, pigmentuak, etab. Betiko ez diren tatuaiak.
- Segurtasun-baldintzak: lokaletakoak, profesionalak eta aplikatu beharreko araudia.

PROZEDURAZKOAK:

- Tatuariaren antropologiako azterketa Historian zehar.
- Erabiltzen dituzten marrazkiak aztertu eta horien kopia egitea eta marrazkiok duten esanahi kulturala. Marrazki berriak sortzea.
- Informazioa eskuratzeko hainbat iturritara jotzea: liburuak, bideoak, prentsa, Internet, etab.
 - Gorputz-aldaketari buruz dauden gizarte-ikusmoldeen gaineko hipotesiak plazaratzea.
 - Tailer praktikoak.



JARRERAZKOAK:

- Tatuaiak kritikoki baloratzea gizarte eta segurtasunaren ikuspuntutik begiratuta.
- Sentiberak izatea gureak ez diren gizarte- eta kultura-egoeren aurrean.
- Alderdi ekonomikoan aldean segurtasun- eta osasun-alderdiak gehiago baloratzea.
- Erabakiak ongi hausnartu ondoren hartzea oso garrantzitsua dela baloratzea.

EZAGUTZA-ALORREKIN

*Geografia - Historia eta
Gizarte-zientziak
Hizkuntza eta Literatura
Zientzien alorra: Fisika,
Kimika
Arte eta Plastika-
Hezkuntza*

**BESTELAKO ZEHARKAKO
BATZUEKIN**

*Osasunerako
Hezkuntza
Berdintasunerako
Hezkuntza
Kultur arteko
Hezkuntza eta
Elkartasuna*

Gai honetan, ikasgelako lana egiteko oinarritu beharko ginateke ikasleek alde aurretik dituzten ideiak zalantzan jartzen, izan ere, hasieran dituzten ikuskerak zalantzan jartzen direnean bakarrik ezagupen berria sortzeko gauza baitira.

Hasteko, mahai gainean tatuaiaren aldeko eta aurkako ideiak, hainbat euskarrirako testuak talde handian edo txikian) aztertzea... jar ditzakegu. Hori metodologiaren parte garrantzitsua izan liteke.

4. JARDUERAK

Jarraian, zenbait jarduera aurkeztuko ditugu ikasleek piercing-aren gaia sakonean landu ahal izan dezaten. Hemen, bai jarduerak nola soluzioak topatuko dituzu. Ikaslearen koadernoan bere kabuz egin ditzaketen denbora-pasoen soluzioak bakarrik ageri dira.

I. JARDUERA: TATUAIEN AZTERKETA HISTORIAN ZEHAR

Hasieran, ikasleei tatuaiak eta bere bilakaera historikoari buruzko informazioa emango zaie. Horretarako baliagarria izan daiteke material honen 6. puntua. Historia aztertzeko proposatzen zaie, tatuaiaren aurrekoak, egiten zituzten herriak, horren arrazoiak, egungo tatuaiarekin zuten antza... eta abar ezagut ditzaten.

Beste aukera bat da ikasleek beraiek informazioa bilatzea tatuaiaren historia ezagutzeko asmoz, hori, adibidez, internet bidez egin dezakete:

<http://www.cuerpodornado.com/tatuajes.html>

<http://www.tournet.com.ar/marctattoo/informes.htm> <http://www.killos.org/sito/historia.htm>

IKASLEAREN MATERIALAREN I. FITXAREN SOLUZIOA

| Lekua | Garaia | Tatuatuak | Tatuaiaren arrazoiak |
|-----------------------|-------------------|--------------------------|---|
| Alpeak | k.a 3500 | Similaun momia | Sendatzeko |
| Tebas | k.a 2000 | Amunet emakume apaiza | Zigor mondan |
| India, Txina, Japonia | k.a 1000 | Gaizkileak | Apaindura mondan |
| Erdialdeko Asia | k.a 500 | Esziten buruzagia | Erlijosoa |
| Gurutzaden tokiak | Kristautasuna | Gerlariak | Erlijosoa |
| Estatu Batuak | Gerra Zibila | Ejertzitoa | Apaindura mondan |
| Britania Handia | Antzinaroa | Gerlariak | Etsaia beldurtu eta izutzeko |
| Inkak | Antzinaroa | Herritarak eta gerlariak | Bere izpirituarekin identifikatzeko animaliak |
| Hegoamerica | Antzinako tribuak | Iniziatuak | Magia eta religioa |



2. JARDUERA: TATUAIA FINKOEN ETA BESTELAKO AUKEREN KONPARAZIO-AZTERKETA EGITEA

Ikerketa-lan txiki baten eta konparazio-azterketa baten arteko konbinazioa da. Aztertu beharreko parametroak tatuaiak dira, bai tradizionalak nola eman ditugun alternatibak, behin-behineko itsasgarriak eta hennazko tatuaiak. Ikasleek sistema bakoitzaren alderdi nagusiei buruzko informazioa topatu eta ikaslearen **2. fitxa** osatu behar dute.

Lan hau oso egokia da taldetan egiteko, honela, berau bukatu ondoren eskuratutako emaitzak gainontzeko ikaskideei jakinaraziko dizkiete denon arteko eztabaida pizteko asmoz, azkenik, erabilitako parametro guztietan oinarrituta, tatuatzeko sistemarik egokiena aukeratzeko gauza izan beharko dira. Fitxa honen soluzioa ez dugu gaineratu, irakasleak ikasleak aholkatu beharko ditu berau osatzeko.

3. JARDUERA: HONAKO ISTORIO HONETAN DAGOEN AKATSA AURKITU

Tatuaia bat egiteko erabakia hartu duten lagun batzuek egingo duten kontaktaren bidez, ikasleek tatuaien inguruko ezagutzak areagotuko dituzte. Horretarako istorioa irakurri eta bertan dauden akatsak edo omisioak aurkitu baino ez dute egin behar, era berean, jarrera edo ideia zuzena zein den eman beharko dute.

Jarduera hau banaka nola talde txikitan egiteko aukera dago. Ariketa egin ondoren, sumatutako akatsak eta beraiek egoki irizitako zuzenketak jende aurrean adieraz ditzakete, horrela gaiari buruz duten ezagutza ikusteko aukera egongo da.

Beste aukera bat da ikasleak gauza bera egiten saiatu daitezela, hau da, ikasgela multzotan banatu eta horietako bakoitzak bere iritziz garrantzitsuak diren akatsez betetako istorio bat egin dezan. Ondoren, kontaketa hauek multzoei banatuko zaizkie (taldeei ezin izango zaie beren kontaketa tokatu) eta akats guztiak aurkitzen ahaleginduko dira. Jarraian, denen artean zuzenduko dute.

IKASLEAREN MATERIALAREN 3. FITXAREN SOLUZIOA ETA TATUAIA BAT EGITEN BADUGU?

kontaketa honetan hamaika akats aurkituko dituzte, guztiak beltzez daude nabarmenduta:

| | |
|-----------------------|--|
| Lehen lerrokada | Ez dago akatsik. |
| Bigarren lerrokada | Gomendagarria ez den alde batean tatuaiak egitea: bularrak. |
| Hirugarren lerrokada | Establezimenduak jarduera hori egiteko baimena duen ez egiaztatzea. |
| Laugarren lerrokada | tatuaia-egileak hotzeria du eta ez dute aipatu maskara jarri duenik, hau beti egin behar duela (gaixo egon ala ez). Profesionalak eraman behar dituen babes-metodoak biok babesteko dira. Latexeko eskularruak poltsikoan eta alderantziz baldin badaude, berriak ez diren seinale. Tinta beltza ontzi handi batetik atera du. |
| Bosgarren lerrokada | Ez dago akatsik. |
| Seigarren lerrokada | ez dute aipatzen jasotako zerbitzuagatik ordainagiria eskatzen duenik, «ordaindu ondoren badoa» bakarrik dio. |
| Zazpigarren lerrokada | Jorgek benda behar baino lehen kendu du. Tatuaia orbaintzen ari zaien denboran bainua hartzen du eta hau ez da oso gomendagarria. |



4. JARDUERA: IBILBIDEA OSATU

Jarduera hau oso sinplea da eta banaka egin dezakete hasieran ondoren, denon artean zuzenduko dutela. Egindako lan guztia ebaluatzeko balio dezake. Horren bidez, zazpi urratsez osatutako ibilbidea egin beharko dute, hauetan tatuaiaren prozesua ageri da erabakia hartzen denetik tatuaiaren guztiz sendatua egon arte.

Jarduera egiteko ikasleek beren materialaren **4. fitxa** bete beharko dute. Ematen dituzten erantzunak ez dira hitzez hitz ondoan jarri ditugunen berberak izan behar, azaldutako kontzeptuak argi gelditzen badira eta tatuaiaren bat egitearen garrantziaz ohartzen badira nahikoa da.

IKASLEAREN MATERIALAREN 4.FITXAREN SOLUZIOA ETA TATUAIA BAT EGITEN BADUGU?

- 1.- Tatuatu aurretik ongi pentsatu behar dute.
- 2.- Zer eta non tatuatu behar duten erabaki behar dute.
- 3.- Hautatutako zentroak jarduera hori egiteko baimena duela eta higie- eta segurtasun-arauak betetzen dituela egiaztatu behar dituzte.
- 4.- Tatuaiaren-egileak behin erabiltzeko eta esterilizatutako materiala, eta eskularruak eta maskara erabiltzen dituela egiaztatu beharko dute.
- 5.- Tatuaiaren zaindu behar dute tatuaiaren-egileak emandako argibideei jarraitzen dietela.
- 6.- Egindako lanarengatik ordainagiria eskatu behar dute.
- 7.- Tatuaiarekin arazoren bat egonez gero sendagilearengana jo eta erreklamatu behar dute.

5. JARDUERA: HENNAZKO TATUAIA BAT JARRI

Prozesu guztiaren amaieran jarriko dute ikasleek beharrezkoak ez diren arriskuak saihesten dituen prozesua aukera dezaten. Kontua da gazteek betirako ez diren tatuaiaren-motak proba ditzaten (henna kasu), horrela gustuko duten probatu ahal izango dute. Horrela ikusiko dute zenbateraino dauden betirako tatuaiaren bat jartzeko prest. Ikaslearen materialaren **5. fitxa** hennazko tatuaiaren bat egiteko prozedura xehe-xehe azalduta dago. Gainera, ideiak ematen zaizkie zenbait diseinuren artean erabaki dezaten tatuaiaren egin aurretik eta, era berean, bestelako diseinuak bilatzeko ere hainbat web orriren helbideak ematen zaizkie.





5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

4. jarduera oso tresna egokia da egindako jarduera guztien ebaluaketa egiteko. Hala eta guztiz, irakasle bakoitzak ebaluatzekeo gustuko dituen tresnak diseinatu eta zirriboratu ahal ditu:

- Behaketa-txantiloak..
- Ikasleek, beste irakasle batzuek, familiek,... etab. erantzun beharreko galdetegiak, hauei buruzkoak:
 - *Planteamenduen egokitasuna.*
 - *plangintza: ikerkuntza, tenporalizazioa, erabilitako materialak.*
 - *ikasleen egokitasuna: interesa, ulermena, manipulatzeko erraztasuna.*
- Bestelako jarduerak eta tailer praktikoak.



6. INTERESEKO INFORMAZIOAK

6.1. SARRERA

Azala tatuatzea ez da zerbait berria, badira milaka urte egiten dutela, dena den, ez dakigu zehazki noiz eta nola asmatu zuten tatuaiak egiteko prozesua. Gaur egun, prozesu hau sofistikatu eta dibertsifikatu da, eta loreak eta landareak, zientzia fikzioa eta tribu-diseinuak sartzen dituzte. Tatuaiaren latinezko hitza *stigma* da, eta jatorrizko esanahia gaur egungo hiztegietan azaltzen da. Estigmaren definizioen artean honakoak daude: «tresna zorrotz batek eginiko seinaleak», «gaizkile edo esklabo bat ezagutzeko azalean egiten duten seinalea» eta «erruduntasun-seinalea».

Zer da tatuaiak bat?

Tatuaiak dira azalean egindako pitzaduren bidez sartutako pigmentu disolbaezin batzuk sartzean egiten dituzten seinale edo marrazki iraunkorrak. Horretarako, oso orratz meheak erabiltzen dituzte, eta hauek hamaika ebakiak egiten dituzte gorputzaren hainbat aldeetan. Tatuaiak eta eskarifikazioa bereizten dira azkenekoan marrazkia pigmentu edo kolorazio artifizialik ez duen erliebedun orbain batek osatzen baitu. azal iluna duten herrietan egin ohi dute, Afrika Erdialdekoetan esate baterako, hauek azalaren ebakiak erraztasun igurtzen dituzte hantura areagotzeko eta orbainari erliebe handiagoa emateko asmoz. Tatuaiaren izen zientifikoa dermatografia da.

6.2. TATUAIAREN HISTORIA



Tatuaiaren jatorriak ezagunak ez badira ere, adituek uste dute Alpeetan 1991. urtean aurkitutako momia batek zituen tatuaiak adibide zaharrenak direla. Glaziar baten barruan aurkitutako neolitikoko¹ ehiztari batenak ziren, honek tatuaiak zituen gorputzaren hainbat ataletan (bizkarrean eta belaunetan). Momia honi *Similaun* izena eman zioten. bere gorputzean aurkitutako tatuaiak xede apaintzailea izan beharrean, sendatzeko xedea zutela uste dute, akupuntura moduko bat zela alegia.

Segida kronologiko bati jarraitzen diogula, k.a. 2000. urtean gaude. Garai honetan kokatzen dute Tebaseko *Amunet* izeneko apaiz emakumea, honek Hathor (maitasunaren eta ugalkortasunaren jainkosa) jainkosa gurtzen zuen. Puntu eta lerroz osatutako marrazki sotil batzuek apaintzen zuten bere gorputza. India, Txina edo Japonia bezalako herrialdeetan tatuaiak k.a. 1000. urte aldean sartu zen merkataritza-bideen bidez. Tatuaiak gaizkileei jartzen zizkieten zigor moduan, ez zuen gorputza apaintzeko xedea alegia.

¹ Historiagileek momia hau k.a. 3500. urtean kokatzen dute eta Neolitikokoaren Aroak bere baitan hartzen du k.a. 7000. urtetik k.a. 3000. urtera artekoa.



Jauzi batez k.a. 500. urtean gaude, Asia Erdialdean, bertan aurkitu zuten Esziten buruzagi baten momia, gorputza tatuatua zuena. Kasu honetan apaintzeko tatuaiak omen da, eta irudimenezko izakien marrazkiak ageri dira.

Kristautasuna iritsi zenean, ohitura hau aski baztertuta utzi zuten. Kristauek ez zuten ontzat jotzen gizakiaren irudia aldatzea, Jainkoak bere antzera egin baitzuen. Hala ere, jasota dago gurutzadetan borrokatzen ziren gudulariek gurutzeak tatuatzeko zutuztela beren gorputzetan lurperatze kristaua segurtatzea helburu zutela.

Borneon, gaur egun ere, orain dela milaka urteetan egiten zuten tribu-tatuaiak egiteko ohitura mantendu dute, leku gehienetan ez bezala. Bali eta Javako artea gogorarazten du. Tatuaiak egiteko erabiltzen dituzten tresnak Polinesiar erabiltzen dituzten antzekoak dira. Polinesiako tatuaiak antzinatean egiten zuten artistikoena zen, ezaugarri bezala landutako diseinu geometrikoak zituen, hauek banakoaren bizitzan zehar edertu eta berritzen zituztela, usu gorputz osoa hartzera heltzen ziren arte.



Cook Kapitainaren marinela izan ziren itsasgizon tatuatuen tradizioa hasi zutenak eta gaur egun ezagutzen dugun izena Europan sartu zutenak: tatuaiak. Bere bidaietako batean, 1769. urtean, Polinesiara iritsi ziren eta bertan bizi ziren indigenen bidez ezagutu zuten tatuaiaren artea. Hauentzat begirunea eta mirespina adierazteko ikurra zen. Cook-en marinelek itsasontzietan praktikatu zuten arte hau eta lurrera iritsi ondoren, tatuatzeko tailerrak portuetan jarri zituzten. Cook-en bidaietan ere ezagutu zuten Moko artea maorien artean. Prozesu hau oso landua eta mingarria zen eta hilabeteak behar zituzten burutu ahal izateko, ondorioz, kiribil itxurako edo marrak zituzten diseinu beltzak lortzen zituzten. Bidaia hauei esker antzinako kulturetan tatuaiak egiten zituztela badakigu.

Antzinateko herrietan apaindura moduan baliatzeaz gain, haientzat gizarteratzeko zeinua zen. Zeelanda Berrian, aurpegia tatuatzea dotoretasun ikur zuten.

Antzinako tribuen artean tatuaiak egitea zerbait arrunta bazen ere, Amerikako kontinentean «boom»a gerra-arrazoia zirela-eta gertatu zen, Estatu Batuetako Gerra Zibila. Tatuaiak egiteko lehendabiziko estudioa Martin Hildebrandt-ek zabaldu omen zuen New Yorken 1870. urtean, hau Alemaniako etorkina zen eta bere lehiakide nagusia 1891. urtean tatuatzeko makina asmatu zuen Samuel O'Reilly zen, berau Thomas Edisonek sortu zuen makina batean oinarritu zen.



Gure herrialdean, tatuaiak portuetako guneeetan garatu zen batik bat, marinela eta marinela-tradizioa zuten aberatsak aitzindari izan ziren. Klase ertainetara ez zen igaro 80.eko hamarkadara arte, garai horretan tatuaiak matxinatzeko edo gizarteko arauak hausteko modutzat ikusten zuten. Gaur egun, tatuaiak azkar garatzen ari da 15 eta 30 urte bitarteko gazteen artean. Salneurria neurria eta kolore kopuruaren arabera aldatzen da, baina 24,04 eta 42,07 euroren artean egon ohi da, eta oso prezio altuetara ere irits daiteke, bakoitza ordaintzeko prest dagoenaren arabera delarik. Tatuaietan ageri den berriena tatuaiak kosmetikoa esaten diotena da, hau

Estatu Batuetan sortu zen makillaje iraunkorra eramateko ideia zutelarik.. Egun, gure herrialdean gehien erabiltzen dutena aldi baterako tatuaiak dira.



6.3. ZEIN IZAN DIRA GORPUTZA APAINTZEKO EGON DIREN ARRAZOIAK?

Lehen ere hainbat arrazoi aipatu izan ditugu:

- sendatzeko terapia moduan
- arrazoi estetikoak direla-eta
- erlijio-arrazoiak direla-eta
- begirune eta miresmena adierazteko ikur gisa
- dotoretasun eta gizarteratzeko ikur gisa
- zigor moduan ...

Baina historian zehar bestelako arrazoiak ere aurkitu ditugu:

- Antzinako Britainia Handian, gerrara zihoazen gudulariek gorputza eta aurpegia tatuatzen zituzten etsaiei beldurra eta izua eragiteko.
- Munduko alde batzuetan sakrilegioa egitea leporatzen zieten pertsonak tatuatzera zigortzen zituzten.
- Egipciarren tatuaiak bizitzaren alde erotiko, emozional eta sentsualarekin lotuta zegoen.
- inken tatuaietan, beste kultura anizteta bezala, askotan animaliak agertzen ziren eta oro har magia, totemak eta tatuatzen zen pertsonak animaliarekin izpirituarekin identifikatzeko gogoarekin erlazionatuta zegoen. Iparramerikan ere, tatuaiak eta praktika erlijiosoak eta magikoekin lotzen zuten. Pubertarorako igarotzearen errito sinbolikoa eta arima heriotzarako bidean oztopo guztiak gaintzea ahalbidetuko zuen seinalea zen.
- Zigorra, lehen aipatu dugun bezala, ez zuten Japonian bakarrik egiten gaizkileak identifikatzeko, Estatu Batuetan ere egiten baitzuten, Massachusettsen hain zuzen ere. Hori dela-eta, hainbat lekutan tatuaiak espetxearekin edo baztertutako taldeekin lotzen dute.

Guztira tatuatzeko zenbait arrazoi topatu ditugu?

Arrazoi terapeutikoak, estetikoak, erlijiosoak, izua eragitekoak, exotiko eta sentsualak, magikoak, gaizkile eta sakrilegoentzako zigor moduan, begirune, miresmen eta gizarteratzearen ikurra.

6.4. TATUAIAREN PROZESUA

ONGI PENTSATU BEHAR: Tatuaiak betirako den zerbait da eta ezabatzeko metodoak badaude ere, hauek ez dute % 100eko eraginkortasuna, beraz,...

ZER ETA NON JARRI AUKERATZEA: Lehendabiziko gauza agerikoa da, ez dute tatuatu behar damutu ahal zaion zerbait, neska-lagun edo mutil-lagunaren izena esaterako. Erabakitzen duten alde ere oso garrantzitsua: oso agerian hobeto ote?, gutxi edo nahi dutenean bakarrik ikustea hobeto ote?, erabaki beharreko gauzak dira. Gainera, bestelako alderdi batzuk ere kontutan hartu behar dituzte: oinazea (toki guztiek ez dute min berbera ematen), irudiaz aspertzea (batzuek tatuaiak bizkarrean jartzen dute ia ez ikusteko eta horrela marrazkiaz ez aspertzeko, jende guztiari erakusten dioten bitartean) edo balizko itxuragabetzea (emakumezkoek kontu berezia izan behar dute sabelaldean egiten dituzten tatuaiarekin, izan ere, haurdunaldi baten ostean, azala lisatzean tatuaiak itxuragabetzen baita).

LOKALA ETA PROSESIONALA AUKERATZEA: Oso garrantzitsua da. Zentroak praktika hauek egiteko BAIMENA duela eta HIGIENE-ARAUAK betetzen dituela egiaztatu behar dute, lokalari (garbi eta aireztatuta egon behar dena) eta tatuaiagileari dagokienez:

- Eskularru kirurgikoak eraman behar dituzte (oro har latexezkoak), hauek behin erabili ondoren bota beharko dituzte. Hau da, bezero bakoitzeko eskularru pare bat erabili behar dute. Maskara ere erabili behar dute, horrela, babesa biok izaten dute, bai bezeroak nola tatuaiagileak. Ebakiak, zauriak, erradurak edo bestelako lesioak estalita izan behar dituzte, arropa garbia, bere lanerako berezia dena erabili behar dute, beratu aldatu beharko dute odolez edota gorputz-fluidoak zikintzen den bakoitzean.



- Tatuaiaren egiten duten guneko ileak kendu behar dituzte eta bezero bakoitzarekin bizar-xafla berria erabiliko dituzte, eta erabili ondoren bota beharko dituzte.
- Tatuaiaren egiterakoan erabiltzen duten material guztia, dela orratzak², tinta, edo beharrezko den beste edozein materiala esterila izango da eta erabili ostean bota beharko dute.
- Kontuz ibili behar dira erabiltzen duten pigmentuari dagokionez, ez dute ontzu handietatik atera behar, ontzi txikietatik baizik, hauek bota egingo dituzte lana burutu ostean. Tinta eta pigmentuak homologatuta daudela egiaztatu beharko dute.
- Lana bukatu ondoren, tatuaiagileak eta bendatu baino lehen baselina pixka bat jarriko du tatuaiaren gainean, horrela, benda eramaten duten denboran gune hori hidratatuta mantenduko dute. Baselina ipintzeko espatula berri bana erabiliko dituzte bezero bakoitzarekin.

TATUAIA SENDATZEA: tatuaiaren egin eta benda jarri ondoren, tatuaiagileak orobatuzeko prozesuari begira ematen dituen argibideei arretaz jarraitu behar diete.

ORDAINAGIRIA ESKATZEA: Lokala utzi baino lehen, egindako zerbitzuagatik.

ARAZOAK BALDIN BADAUDE: Tatuatutako gunean arazoren bat agertzen baldin bada, laster batean sendagilearengana jo beharko duzu, sintoma hauetakoren bat izanez gero batik bat: sukarra, gorritzea edota hantura, oinazea edo molestiak. Arazoak izatekotan erreklamatu behar dute.

ERNE! Tatuatutako pertsonak tatuaiaren egin ondoren ezin dute odola eman urtebetez.

6.5. TATUAIA EGIN AURRETIK KONTUTAN HARTU BEHARREKO AHOLKUAK:

- Tatuaiaren egin aurretik hobe da lasai egotea, horrela ez du hainbesteko minik emango. Urduri eta tentsioan egotean, gorputza, eta berarekin batera giharrak, uzkuartzen dira eta ondorioz oinazea handiago izaten da.
- Aurretik ez dute alkohola edan behar. Alkohola hodi-zabaltzailea da, hortaz, ohi baino odol gehiago botatzen da tatuaiaren egiterakoan. Honek ondorio kaltegarriak ditu: odol gehiago botatzean tatuaiagilearen lana oztopatzen da, eta gehiago ziztatu behar badu, tatuaiaren are mingarriagoa izango da.
- tatuatu beharreko gunea ongi aukeratu behar dutela dagoeneko aipatu dugu. Baina gogoan hartu behar dugu gorputz-atal batzuek urteak igaro ahala malgutasuna galtzen dutela, ondorioz, tatuaiaren egin zutenean zuten itxura ere aldatuko da. Hau da, urteak igaro ahala tatuaiaren itxura galdu ahal izango du. Tatuaiaren bat egiteko «oso gomendagarriak» ez diren alderdien artean sabelaldea, ipurmasailak edo bularrak daude. Alde hauek tatuatzekotan, gauza hauek kontutan hartu behar dituzte: bere itxuragabetzea oso nabaria izango den marrazkiak saihestea eta marrazki abstraktuak edo tribuetakoak hautatzea.

TATUAIAK BEREKIN DITUEN ARRISKUAK ZEIN DIRA?:

- Zornadurak.
- Onddoak.
- Herpes.
- Alergiak.
- B Hepatitis.

- C Hepatitis, berau gibe-
leko zirrosi eta kasuen
% 3 eta % 4 bitartean
gibe-
leko minbizi
bilakatu ahal delarik.
- HIESaren birusa.

² Orratza altzairu esterilizatuzkoak izan behar dira eta pigmentua azalaren azpian sartzea dute helburu, horrela, tatuaiari itxura emateko.



ZEIN KASUTAN EZ DUTE TATUAIA EGIN BEHAR?

- Azaleko gaixotasunaren bat izatekotan, psoriasis modukoa esaterako.
- Pigmentu batzuei edo metal batzuei alergია dutela dakitenean (gogoan izan orratzak altzairuzkoak direla).
- Hemofilia edo epilepsia izatekotan.
- Taupada-markagailu bat izatekotan ere ez dute jarri behar, izan ere, tatuaiak egiteko erabiltzen dituzten orratzak makina elektrikoak³ baitira, taupada-markagailuaren jarduera eragotzi dezakete.

ZE ZAINKETAK EGIN BEHAR DITUZTE TATUAIA EGIN ONDOREN?

Tatuaiak gutxi gorabehera bi aste inguru behar izaten dituzte orbaintzeko. Denbora-tarte hau tatuaiaren neurriaren eta egiten duten gorputz-gunearen arabera izango da.

Egun hauetan zehar, honako zainketak egin beharko dituzte:

- Tatuaiak bukatu ondoren, benda bat jarriko dute horren gainean. Gehienez bost ordu igaro ostean kendu beharko dute benda. Benda azalari itsasten bazaio busti eta kontu handiz kendu ahal dute.
- Berau garbitzeko bakterien aurkako xaboi likidoa erabiltzea gomendatzen dute, gainera, esku hutsez egin behar da, eskularruak, belakiak...etab. erabili gabe. Egunean bi aldiz edo egin behar dute. Orbaintzen laguntzeko ukenduren bat gomendatu ohi dute, kasu horretan garbitzen duten bakoitzean erabil dezakete.
- Tatuaiaren gaineko benda kendu ondoren, ez dute berriz bendatu behar tatuaiak arnas dezan.
- Orbaintzeko denboran ez dute tatuaiak ukitu, igurtzi, atximurkatu edo haztatu behar. Zarakar edo oilaurra agertzekotan, ez dute kendu behar, berez erortzen utzi behar dute. Kentzen badute, orbaintzeko prozesu naturala eteteaz gain, tatuaiaren zati batzuek kolorea galtzea edo zornatzea gerta daiteke.
- Orbaintzeko denbora ez dute utzi behar eguzkiak alderdi hori jo dezan edo ez dira solariumera joan behar. Denboraldi hau iragan ostean, babes-faktoreko ukendura erabili behar dute: gutxienez 15ekoa.
- Denboraldi honetan ez dute bainurik hartu (itsasoan, bainuan edo igerilekuan) edo sauna erabili behar, izan ere, kloro eta ur gaziarekin tatuaiak kolorea gal dezake.
- alde hori estaltzen duen arropa leuna izan behar da eta, jakina, garbi egon behar da. Tatuaiak hanketan baldin badago ez dute galtzerdirik erabili behar zauria orbaindu arte.
- Azkenik, tatuaiak usu bizarra egiten duten gune batean baldin badago, murriztapenak hilabetez egongo dira.

6.6. KURIOSITATEAGATIK, BETIRAKO ZENBAIT TATUAIA DAUDE GAUR EGUN?

- **Biomekanikoa:** joera berrienetakoa da, eta zientzia-fikziozko film eta kontaketen oinarritzen da. Marrazki hauek, oro har, zati mekanikoak edo osagai elektronikoak agerian uzten dituzten azaleko urradurak irudikatzen dituzte.
- **Zeltikoa:** tribuetako estiloaren aldaera da. Funtsean gurutzatzen diren korapilo eta lazoetan oinarrituetako motibo geometrikoak erabiltzen ditu, baina animalien osagaiak eta harri bitxiak ere izan ditzake.
- **Kolorekoa:** kolore guztiak erabili ahal izateko aukera nahiko berria da, batzuek, hala ere, denbora igaro ahala bizitasuna eta distira galtzen dute eta motel edo kolorerik gabe gelditzen dira. Tatuatzeko estilo honek argi, itzal eta kolore lausotuak azpimarratzen ditu.
- **Tradizionalak:** beti erabili izan dituzten tatuaiak dira, marinel-gaietatik hasi, arrano, tigre edo deabruekin bukatu arte.
 - **Tribuetakoak:** elkarren arteko loturarik ez duten kulturetatik etor daitezke: Afrikako kulturak, Iparramerikako indioak edo Australiako aborigenak, herri maiak ahaztu gabe. Kolore gutxi erabiltzen dituzte, oro har beltzez egiten dituztela.

³ tatuatzeko makinak asmatu aurretik, tatuaiak egiteko oso tresna sotilak erabiltzen zituzten.



- **Itzalak eta lausotuak:** tatuaiak handiak izaten dira, bestela itzal-jokoak egiteko aukera gutxi egoten da, gai fantastikoetan oinarrituta daude, hala nola gerlariak edo garezurrak, eta baita animalia mitologikoak eta deabruak ere.
- **Japoniarra:** dragoiak, karpak eta loreak, estilo honetako marrazkietako batzuk dira koloreak, Itzalak nabarmentzen dira, eta gorputzaren formak erabiltzen dituzte nabarmentzeko, bolumena emateko edo mugimendua irudikatzen.
- **Erretratuak:** oro har, zuri-beltzean egiten dituzte eta argazkien itxura dute.

6.7. TATUAIK KENTZEKO AUKERA AL DAGO?

Tatuaiak kentzeko hainbat metodo daude, baina ez dira guztiz eraginkorrak. Gainera kontutan hartu behar dugu jartzea baino garestiagoa dela tatuaiak kentzea. Esaterako, tatuaiak kentzeko laserraz baliatzen baldin bagara, 700 eta 6000 euro bitartean balio dezake, neurria eta jartzen duten tokiaren arabera. Metodo batzuk ikusiko ditugu:

1. Dermoabrasioa: beraren bidez, tatuaiak kentzeko bera dagoen lekua epidermis-geruzak kentzen dituztela. Horrela, azala eta pigmentuak kentzen dute.



2. Gatz urratzea (gatz-urradura): beraren bidez, tatuaiak kentzeko irudia gatz bereziz lixatzen dute desager daitezela. Orbain asko uzten ditu.



3. Azala lisatzea: tatuaiak kentzeko lekua azala eta inguruko lisatzen dute. Tatuaiak ebakitzeko dute eta lisatutako gainazaleko azala bere ordez jartzen dute. Orbain lineala uzten du.



4. Zatitzea: azal-zatiak pixkanaka zatitzean datza, saioka. Orbain asko uzten ditu.

5. Laserra: metodo eraginkorra da, halere, normalean marka edo orbainak geratu ohi dira. Laser-izpiek pigmentuak deuseztatzen dituzte. Hainbat faktorek baldintzatzen duten laserraren eraginkortasuna:



- **Tatuaiak-motak.**
- **Pigmentu beltza edo koloretakoa erabili izanak.**
- **Tatuaiak dagoen gorputz-atalak.**

Kentzen zailagoak diren tatuaiak koloreak dituztenak dira. Tatuaiak zenbat eta zaharrago izan orduan eta errazago da kentzea, izan ere, organismoak astiro mugitu baitu. Egin berria den tatuaiak kentzea nahi baldin badute hobea da lau aste edo itzarotea. Tratamendua egiten duten bitartean eta hilabete batzuk geroago ere eguzkia hartzea komeni da azalak ohizko tonua hartzen joan dadin.

6. Tatuaiak kentzeko beharrez, beste metodo bat badago, gainera beste tatuaiak kentzeko alegia. Teknika honi «**cover up**» edo **estaldura esaten diote.**

6.8. OHIZKO TATUAIEN AUKERAK DAUDE?

Bai, zinez tatuaiak ez badira ere, horrela esaten diete. Hiru adibide proposatuko ditugu:

1. Tatuaiak itsasgarriak edo kalkomaniak. Erraz jartzen dira eta ura eta izerdiarekin ez dira desagertzen, egun batzuk igaro ostean desagertzen dira. Azala garbi eta busti egin behar dute. Orduan kalkomania ahoz behera jarriko dute tintak azala uki dezaten. Leunki igurtzi behar dute diseinua paperean zehar ikusi arte. Ondoren, papera kentzea behar dute lehortu baino lehen.



2. Eguzki-tatuaiak. Azaleko pigmentazio naturala da, izan ere, pertsona bakoitzak bere azal kolorea du. Gorputzean itsasten duten lamina itsasgarria da, honek eguzki-izpiez baliatzen da azalaren gainean marrazki bat egiteko, berau desagertuko da beltzarana joatean. Tatuaiak hau zinta mediku elastiko batez egiten dute, azalaren gainean zazpi egunez egon daiteke, ez du beraterik sortzen, izerditzen du eta urak ez dio kalterik egiten.

3. Hennazko tatuaiak. Horrela deitzen dituzte koloratzaileen bidez egiten dituzten marrazki edo orbanak, horretarako ez da beharrezko azala apurtzea, hala ere, azalak sakon eta denbora dezenterako xurgatzen du pigmentua. Gorputza hennaz margotzeko arteari Mehndi esaten diote. Bi astez edo irauten dute. Irtenbide ona da, beharrezko ez diren sufrimenduak saihesten ditu eta irudia nahi dutenean alda dezakete.

6.9. MEHNDIA, EDO HENNAZKO TATUAIK

Ikusi ditugun alternatiben artean, egun gehien bat hennazko tatuaiak erabiltzen dituzte. Oro har, bi aste eta hilabete bitarteko iraupena izaten dute, eta gutxi gorabere honelaxe egiten dituzte:

- Zuhaixa baten hostoek pigmentua dute, hosto hauek lehendabizi lehortu egiten dituzte eta ondoren xahutu egiten dituzte pigmentua ateratzeko. Horren bidez ateratzen duten hautsa iragazten dute eta olio batzuekin nahasten dute ore moduko bat lortu arte.
- Hennak «hennotanniko» deitzen duten azido-mota du, honek azal, ile zein azazkalen zelulak tindatzen ditu. Azido hennotannikoa zelulei itsasteko denbora apur bat beharrezko da, hori dela-eta, ore bustita eta azala ukituz egon behar da denbora batez ongi funtzionatzeko.
- Ore hau erabiltzen dute azala eta ilea tindatzeko. Azalaren gaineko tatuaiak egiterakoan, ore zuzenean jartzen dute azalaren gainean pintzel baten bidez. Marrazkia bukatu ondoren, lehortzen uzten dute.
- Batzuetan zenbait substantzia gaineratzen dituzte lehortzeko prozesuan pigmentua azalean errazago sar dadin. Lehortu ondoren ore edo pasta kendu eta alde hori agerian uzten dute lehortzen bukatzeko.
- Henna naturala ez da beltza. Erredura eta alergia larriak eragin ditzake. Zenbait henna beltza ez da garbia, henna duen ore baizik, honen osagai nagusia oso toxikoa den substantzia kimikoa da, honek oro erreakzio alergiko larriak eta erredurak eragin ditzake eta ez dute erabili behar.
- Bestelako henna beltza eta koloretakoa ere badago, honek azala tindatzeko erabiltzen duen metodoa koloratzaile sintetikoa da, ez dago arriskurik hau erabiltzeko, izan ere, tindatzeko ez da azalean sartzen, baizik eta larruazalean geratzen den. Henna beltzezko eta koloretako tattoek 4-7 eguneko iraupena izaten dute. Ore edo pasta azala ukituz 2 orduz utzi behar da soilik eta ondoren urarekin garbitu.

Aukera honen alderdi positiboa oso garbi dago:

- Ez dituzte orratzak erabiltzen, ondorioz, ez du minik ematen eta ez du orbainik uzten.
- Denbora igaro ahal desagertzen da, bi aste inguru edo irauten du, horrela, tatuaiak aldatzeko aukera dago.
- Ez dago inolako arrisku-talderik edo tatuaiak hauek egin ezin dituenak, eta bestelako arriskurik ere ez dago.

Ohizko tatuaiaren aldean dituen abantailak asko izan arren, alergiaren azterketak egin ondoren, osagai zehatz baten emaitza positiboa izan dute, hau, berez, ez da hennaren osagaia baina batzuetan hennari gaineratzen diote azalean sartzeko behar duen denbora murrizteko asmoz. Sustantzia edo osagai honek ile-apaindegietako tintengatikoa alergia eragiten du.

